# *Lan-eskaintzen erregistroa 2022ko abuztuan*

## ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2022ko abuztuan Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 672 izan da, abuztuan baino 672 gutxiago eta joan den urteko abuztuan baino 48 gehiago.

### • LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2022ko abuztuan 136 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 279 Gipuzkoan eta 257 Bizkaian. Lan-eskaintzen % 41,5 Gipuzkoako KAUetan erregistratu dira, % 40,9 Bizkaiakoetan eta % 13,8 Arabakoetan.




Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 13,4 murriztu dira eskaintzak (21 eskaintza gutxiago). Bizkaian 208 eskaintza gutxiago izan dira (% 44,7ko beherakada) eta, azkenik, Gipuzkoan 237 eskaintza gutxiago (% 45,9ko jaitsiera).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, Araban 22 eskaintza gehiago erregistratu dira, % 19,33ko hazkundea, Bizkaian % 6,6 hazi dira eskaintzak (16 gehiago), eta azkenik, Gipuzkoan % 3,7koa da hazkundea (+10 eskaintza).

### • LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Lanbide-profilei dagokionez, zientzietako teknikarien profilerako erregistratu dira eskaintza gehien; 137 eskaintza eta, % 20,4ko pisua eskaintza guztien artean. Zerbitzuetako profilak jarraitzen dio (122 eskaintza, % 18,2ko pisua). Ez kualifikatu eta industriako lan eskaintzek, ere, pisu nabarmena dute; 94 eta 89 eskaintza erregistratu dira, hurrenez- hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu diren profilak, zuzendariak eta lehen sektorekoak izan dira, 4 eta 11 eskaintza, hurrenez hurren.

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, eskaintza mota guztietan murriztu dira eskaintzak, lehen sektorekoak izan ezik; profil honetako 8 eskaintza gehiago erregistratu dira (3 tik 11ra pasa dira). Gehien murriztu diren eskaintzak, balio absolutuetan, zientzietako teknikarien profilekoak izan dira (149 eskaintza gutxiago, % 52,1eko beherakada); balio erlatiboetan, berriz, beherakada nabarmenena zuzendarien eskaintzatan gertatu da ( % 55,6ko beherakada, 5 eskaintza gutxiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, profil gehienetako eskaintzak hazi dira. Gehien hazi direnak, bai balio absolutu zein erlatiboetan, operadoreen profilekoak izan dira (47 eskaintza gehiago, % 142,2ko hazkundea). Gehien murriztu diren eskaintzak, bai modu absolutuan zein erlatiboan, zerbitzuetako eskaintzak izan dira ( -28 eta eskaintza, % 18,7ko beherakada).

### • KONTRATU MOTA

# *Lan-eskaintzen erregistroa 2022ko abuztuan*

Erregistratutako lan-eskaintzen % 36,2k kontratu mugagabea eskaini dute; % 63,4k, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 0,4ak, merkataritzakoa. Kontratu mugagabea eskaini duten eskaintzen portzentaia altua da; 2021etik zetorren joera indartzen ari da 2022an. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 243 izan dira, aurreko hilabetean baino 98 eskaintza gutxiago (% 28,7ko beherakada). Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten 336 eskaintza gutxiago erregistratu dira: 426 eskaintza izan dira guztira. Kopuru erlatiboetan beherakada % 46,2koa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2022ko abuztuan 3 izan dira, aurreko hilean baino 2 gutxiago.




Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 159 gehiago izan dira (% 189,3ko hazkundea); aldi baterako kontratuen eskaintzak, berriz, % 20,8 murriztu (112 eskaintza gutxiago). Eta, azkenik, merkataritzako kontratu 1 gehiago erregistratu da (2tik 3ra,azken urtean).

## • Eskatutako esperientzia-denbora

2022ko abuztuan erregistratutako lan-eskaintzen % 75,5ek, 507 eskaintzak, 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 13,7k (92 eskaintza) 6 eta 12 hilabete arteko esperientzia eskatzen dute. Portzentaia txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek % 1,9ko pisua dute (13 eskaintza) eta, 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen duen eskaintza 1 bakarrik egon da hil honetan (eskaintza guztien % 0,1).




Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, eskaintzak murriztu egin dira 3 urtetik gora eskatzen duten 2 tarteetan izan ezik; lehengo hilabeteko eskaintza kopurua berdindu egin da bi kasuetan. Gehien murriztu direnak, balio absolutuetan, 0 eta 6 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (427 eskaintza gutxiago, % 45,7ko beherakada).

Urte arteko eboluzioari dagokionez, tarte guztiak hazi dira 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenena izan ezik; kasu horretan, eskaintza 1 gutxiago erregistratu da. Gehien hazi diren eskaintzak, balio absolutuetan, 0 eta 6 hilabete arteko esperientzia denbora eskatzen dutenak izan dira (26 eskaintza gehiago, % 5,4ko hazkundea); balio erlatiboetan, aldiz, hazkunde handiena 1 eta 3 urtekoen artean izan da (% 34,1eko igoera, 15 eskaintza gehiago).

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 8 hileko esperientzia eskatzen dute, aurreko hilean bezain beste.

## • LANALDI MOTA

Analisiarekin jarraitu baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 13k zehazten du datu hori (672 eskaintzetatik 87). 87 eskaintza horietatik, 71k lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 16ak, lanaldi partziala eskaini dute.

Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 61 gutxiago izan dira uztailarekin alderatuz, hau da, % 46,2 murriztu dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak, berriz, 5 gutxiago izan dira; murrizketa erlatiboa % 23,8koa izan da.




Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko eskaintzak 18 gehiago izan dira (% 34ko hazkundea), eta lanaldi partzialeko kasuan, 1 gutxiago (% 6,7ko beherakada).

## • ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 14 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino 6 eskaintza gutxiago eta aurreko urtean baino 3 gehiago.

## • ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 84,5ek ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 672 eskaintzetatik 104k soilik zehaztu dute.

104 eskaintza horietatik, 39k unibertsitateko prestakuntza maila eskatu dute; ikasketa maila hau duten eskaintzak izan dira ugarienak. Ondoren, LHko ikasketa mailak eskatzen dituztenak daude, 36 eskaintza erregistratu dira. Azkenik, oinarrizko eta batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude (26 eta 6 eskaintza, hurrenez hurren).




Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, mota guztietako ikasketen eskaintzak murriztu dira. Gehien jaitsi diren eskaintzak, balio absolutuetan, LHko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (32 eskaintza gutxiago, % 47,1eko beherakada); balio erlatiboetan, aldiz, murrizketa handiena unibertsitateko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzetan izan da (% 43,5eko beherakada, 30 eskaintza gutxiago).

2021eko abuztuarekin alderatuta, LH eta derrigorrezko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak hazi dira; 20 eta 5 eskaintza gehiago, % 125 eta % 27,8ko hazkundea, hurrenez hurren. Murriztu

direnak, aldiz, unibertsitate ikasketak (- 4 eskaintza, -% 9,3) eta batxilergokoak (- 1 eskaintza, -% 14,3) izan dira.

## • ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen den jarduera merkataritza profilekoa da; honen pisua eskaintza guztien % 14,1ekoa izan da (95 eskaintza). Nabarmentzeko beste jarduera bat industria da, eskaintzen % 12,5eko pisuarekin (84 eskaintza).

Aurreko hilari erreparatuz, ia eskaintza guztiak murriztu dira. Balio absolutuetan, gehien jaitsi diren eskaintzak, manufaktura industriak izan dira (94 eskaintza gutxiago, % 52,8ko beherakada); balio erlatiboetan, aldiz, beherakada nabarmena finantza eta aseguru jarduerek izan dute (% 83,3ko murrizketa, 5 eskaintza gutxiago). Beste muturrean, aisialdi jarduerak daude, hauek izan baitira gehien hazi direnak (4 gehiago, % 50eko gorakada).

Urte arteko saldoari erreparatuz, eskaintza gehienak hazi dira. Bilakaera hoberena izan duten eskaintzak, bai balore absolutu zein erlatiboetan, garraiokoak izan dira (31 eskaintza gehiago, % 206,7ko hazkundea). Bilakaera okerrena izan duten eskaintzak, ostalaritzakoak izan dira; 60 eskaintza gutxiago eta % 60ko beherakada.